



## **I. ERANSKINA**

### **Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza baten barne-mugikortasun horizontaleko prozeduraren oinarri arautzaileak.**

**Lehenengoa.** Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari lanpostu huts baterako deialdia egiten da; deialdia Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne-mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduan ezartzen dena betez egiten da (1999ko urriaren 29ko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofiziala, 14. zenbakia).

Plaza funtzionario-erregimenekoa da, C mailan dago, eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoan ezarritako ordainsariak ditu.

**Bigarrena.** Deitutako plazaren funtsezko ezaugarriak honako hauek dira:

a) Plazaren eduki funtzionala Nafarroako Arartekoaren erakundearen eginkizunetik eta jarduera osotik eratorritako betearazte-lan administratiboei dagokiena da.

Plaza horri honako zeregin hauek dagozkio: dokumentuen sarrera- eta irteera-erregistroa kudeatzea; erakundean jasotako kexak, kontsultak eta proposamenak kalifikatzea; administrazio publikoekiko eta Nafarroako Arartekoaren ikuskapenaren mende dauden beste erakunde batzuekiko komunikazioak; espedienteak izapidetzeko erakundean erabiltzen den aplikazio informatikoaren kontrola eta kudeaketa (kexak, hobekuntza-proposamenak, ofiziozko jarduketak, kontsultak, bitartekaritzak, gai orokorrak eta abar); herri-administrazioen erantzun-denborak kontrolatzea eta beharrezko errekerimenduak egiten parte hartzea; posta-komunikazioak bidaltzea eta jasotzea; erakundearen artxiboen eta dokumentu-funtsen ardura izatea; eta Nafarroako Arartekoaren bulegoan jendeari arreta ematen laguntzea.

Horrek guztiak ez du eragotziko antzeko beste zeregin batzuk agintzea, erakundeari esleitutako eginkizunen esparruan eta erakundean lan egiten duten gainerako langileekin lankidetzan.

b) Funtzioa Nafarroako Arartekoaren egoitzan beteko da (Emilio Arrieta kalea 12, behea, Iruña), eta zerbitzua aurrez aurre emango da.

c) Oro har ezarritako lan-ordutegiari dagokionez, Nafarroako Arartekoaren bulegoan herritarrei ematen zaien arreta presentzialaren arabera antolatua, goizeko lanaldiko hiru egun (8:00-15:00) eta goizeko eta arratsaldeko lanaldiko bi egun (8:00-14:00 eta 16:00-18:00) izango ditu. Salbuetsita dago udako aldia (ekainaren 15etik irailaren 15era), aldi horretan prestazioa goizeko lanaldian egiten baita.



Lanaldia, urteko zenbaketan, Nafarroako Parlamentuko langileei dagokiena da.

**Hirugarrena.** Hauek dira prozeduran parte hartzeko baldintzak:

a) Nafarroako Parlamentuko Administrarien Kidegokoa izatea, edo Transkribatzaileen Kidegokoa izatea eta dagokion gaikuntza administratiboa izatea; azken kasu horretan Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne-mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren xedapen gehigarri bakarrean ezartzen dena beteko da.

b) Zerbitzu aktiboko, zerbitzu berezietako edo eszedentzia bereziko administrazio-egoeran egotea.

**Laugarrena.** Prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 2022ko azaroaren 16an amaituko da, 12:00etan.

Eskabideak Nafarroako Arartekoaren Erregistroan (Emilio Arrieta kalea 12, behea, Iruña, 31002 posta-kodea) edo erregistro elektronikoa ([erregistro@defensornavarra.es](mailto:erregistro@defensornavarra.es)) aurkez daitezke. Nafarroako Parlamentuko Erregistroan ere aurkez daitezke.

Oinarri hauekin batera, II. eranskin gisa, parte hartzeko eskabide-inprimakia aurkezten da.

**Bosgarrena.** Lanpostua aukeratzeko hautagaien lehentasun-hurrenkera ezartzeko funtzionarioak barne-mugikortasunerako hautagai den lanpostuan etenik gabe emandako denbora hartuko da kontuan. Berdinketa gertatuz gero, aintzatetsitako antzintasun handiena duen hautagaiaren alde ebatziko da, eta berdinketa hori mantentzen bada, zaharrenaren alde.

**Seigarrena.** Prozeduran parte hartzen duten funtzionarioek lehentasun-ordenaren arabera lehenago aukeratutako funtzionarioak hutsik uzten duen plaza aukeratu ahal izango dute. Plazek kasuan kasuko unitateko buruzagitzak ezartzen dituen eginkizunak izango dituzte esleituta.

Funtzionarioek ezin izango dute beren administrazio-unitateari edo zerbitzuari atxikitako lanpostu huts bat eskuratu, euskarazko titulua eskatzen duten lanpostu hutsak izan ezik. Kasu horretan beharrezkoa izango da ofizialki onartutako euskara titulu bat izatea (EGA edo baliokidea).

**Zazpigarrena.** Lehentasun-ordena epaimahai batek erabakiko du. Epaimahai hori osatuko dute Nafarroako Arartekoaren Idazkari Nagusiak, Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako kudeaketa-teknikariak eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako ordezkari batek.



Lehentasun-hurrenkera hori finkatzeko datu garrantzitsuak Nafarroako Arartekoak bilduko ditu horretarako langileen arloan eskumena duten Nafarroako Parlamentuko zerbitzuei eskatuta eta ez da beharrezkoa izango hautagaiak datu horiek ematea. Prozeduran parte hartzeak berekin ekarriko du kudeaketa-jarduera hau baimendu eta onartzea, hautagai bat baino gehiago egonez gero prozeduraren ebazpenari dagokion aldetik.

**Zortzigarrena.** Lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, parte hartzen duten funtzionarioei ekitaldi baterako deia egingo zaie hurrengo hamar egunen barruan; ekitaldi horretan lanpostu hutsak hautatuko dira, Epaimahaia erabakitako ordenaren arabera.

Baldin eta, parte-hartzaileek egingo duten hautaketaren ondorioz, Nafarroako Parlamentuko plazak, hasieran deitutakoak ez direnak, esleitu behar badira, Nafarroako Parlamentuko letradu nagusiari helaraziko zaio eremu horri dagozkion atxikipenen ondorioetarako, hamargarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz.

**Bederatzigarrena.** Barne-mugikortasuneko prozesu baten ondorioz lanpostu bati atxikita geratzen den funtzionarioak ezin izango du beste prozesu batean parte hartu harik eta atxikipena egiten denetik hiru urte igaro arte.

**Hamargarrena.** Nafarroako Arartekoak eta Nafarroako Parlamentuko letradu nagusiak bidezko Ebazpenak emanen dituzte prozesuaren emaitza diren atxikipenak egiteko, eta atxikipen horiek eraginpeko zerbitzuen jarraipena bermatzeko modurik onenean gauzatuko dira.

**Hamaikagarrena.** Ebazpen honen berri emanen zaie hirugarren oinarrian aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten funtzionario guztiei, bai eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeari ere, horren berri izan dezan eta Epaimahaian duten ordezkaria izenda dezan.





**Defensor del Pueblo  
de Navarra  
Nafarroako Arartekoa**

## II. ERANSKINA

**Nafarroako Arartekoaren bulegoari atxikitako administrari plaza baten barne-mugikortasun horizontaleko prozeduraren parte hartzeko eskaera.**

\_\_\_\_\_, jaunak/andreak (NAN: \_\_\_\_\_), Nafarroako Parlamentuaren zerbitzura dagoen funtzionarioak, honakoa

ESKATZEN DU: Nafarroako Arartekoaren erakundean administrari plaza baten barne-mugikortasun horizontaleko prozeduran parte hartu nahi duela.

ADIERAZTEN DU: prozedura hori arautzen duten oinarrietan ezartzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen dituela.

DEKLARATZEN DU: oinarri arautzaileak onartzen dituela eta bere datu pertsonalen tratamendua baimentzen duela prozeduraren kudeaketari eta ebazpenari dagokionez, eta Nafarroako Arartekoari baimena ematen diola, bereziki, Nafarroako Parlamentuko zerbitzuetatik datu erabakigarriak biltzeko hautagai bat baino gehiago izanez gero horien arteko lehentasun-ordena ezartzeko.

\_\_\_\_\_, 202 \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ a

### Eskatzailearen sinadura

#### DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen babesarekin zerikusia duen orotan Nafarroako Arartekoak bat egiten du 2016ko apirilaren 27ko Europako Erregelamenduarekin, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikatu dakizkiokeen gainerako legeekin.

**1. Arduraduna:** Nafarroako Arartekoa. **2. Helburua:** erakundearen administrazio-jarduera (langileak, kontratazioa, tributua, ...). **3. Legitimazioa:** kontratu-, estatutu- edo lege-harremana betetzea. **4. Hartzaileak:** administrazio eta erakunde publikoak eta banku-erakundeak. **5. Eskubideak:** datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, tratamendua mugatzea, aurka egitea, eramangarritasuna eta baimena kentzea, legez ezarritako moduan. **6. Datuen jatorria:** administrazio eta erakunde eskudunak eta interesduna. **7. Informazio gehigarria:** hemen kontsulta daiteke: [www.defensornavarra.es](http://www.defensornavarra.es) (datuen babesa).

Datuak babesteari eta beren eskubideak baliatzeari dagokionez, interesdunek helbide honetara jo dezakete: Nafarroako Arartekoa, Emilio Arrieta kalea 12, behea, Iruña (posta-kodea: 31002), telefonoa: 948 203571, helbide elektronikoa: [info@defensornavarra.es](mailto:info@defensornavarra.es).



Emilio Arrieta, 12 - 31002 Pamplona/Iruña  
948 20 35 71 - [info@defensornavarra.es](mailto:info@defensornavarra.es)  
[www.defensornavarra.es](http://www.defensornavarra.es)